



7. Datuen babeserako politikak onestea

## **Datu pertsonalen politika**

Urola Erdiko Mankomunitatea



## 7. Datuen babeserako politikak onestea

# Sorkuntzaren trazabilitate-taulak

Dokumentuaren izenburua	
Dokumentu mota	Datu pertsonalen politika
Fitxategiaren izena	Datu pertsonalen politika – Urola Erdiko Mankomunitatea
Bertsioa	2.3
Egoera	Amaiera
Data	01/12/2020
Egilea	S21Sec

Berrikustea, onartzea		
Berrikusita	Estitxu Lasa	Data: 22/02/2021
Onartuta	Izena	Data: xx/XX/XXXX



## 7. Datuen babeserako politikak onestea

Aldaketen historikoa			
Bertsioa	Data	Jardueraren deskripzioa	Orrialdeak
1.0	05/06/2020	Lehen bertsioa	Guztiak
2.0	08/06/2020	Aldaketak idazketan	Guztiak
2.2	24/06/2020	Onarpena	Guztiak
2.3	10/07/2020	Aldaketa txikiak	Guztiak
2.4	22/02/2021	Aldaketa txikiak	Hitz batzuk



## 7. Datuen babeserako politikak onestea

### **Edukia**

1. Datu Pertsonalen Politika<sup>5</sup>
2. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?<sup>5</sup>
3. Nor da Datuak Babesteko Ordezkarria?<sup>6</sup>
4. Zein helbururekin tratatzen ditugu zure datuak?<sup>6</sup>
5. Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?<sup>6</sup>
6. Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?<sup>7</sup>
7. Nola lortu ditugu zure datuak?<sup>8</sup>
8. Nori komunikatuko zaizkio zure datuak?<sup>8</sup>
9. Zeintzuk dira zure eskubideak zure datuak ematen dizkiguzunean?<sup>8</sup>
10. Nola egikaritu daitezke eskubideak?<sup>10</sup>
11. Zer da konfidentzialtasun betebeharra?<sup>10</sup>



## 7. Datuen babeserako politikak onestea

# 1. Datu Pertsonalen Politika

---

Webgune honen bidez Urola Erdiko Mankomunitateak (hemendik aurrera Mankomunitatea) egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei dagokien Datu Pertsonalen Politika modu erraz eta arinean adierazi nahi du.

Datuak Babesteko Politika hau garatzeko, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa kontuan hartu da, eta haren helburua datu pertsonalen titularrei haien tratamenduari buruzko alderdi zehatzak jakinaraztea da, besteak beste, tratamenduaren helburuak, dagozkien eskubideak egikaritzeko harremanetarako datuak, informazioa gordetzeko epeak eta segurtasun-neurriak.

Politika hau Mankomunitatearen zerbitzuen eta bere web orriaren bidez jasotzen den informazioari aplikatuko zaio.

# 2. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

---

Urola Erdiko Mankomunitatea da tratamendu jardueren arduraduna eta haren kontaktu datuak hurrengoak dira:

- Posta helbidea: Plaza Nagusia 11-1 - 20730 - Azpeitia
- Posta elektronikoa: [dbo@urolaerdia.eus](mailto:dbo@urolaerdia.eus)
- Telefonoa: 943 85 73 19



7. Datuen babeserako politikak onestea

### **3. Nor da Datuak Babesteko Ordezkarria?**

---

Datuak Babesteko Ordezkarriaren (DBO) eginkizuna datuak babesteko oinarritzko eskubidea babestea eta arlo honetan indarrean dagoen eta Mankomunitateari aplikagarri zaion araudia betetzea da. Mankomunitateko DBO-arekin kontaktuan jar zaitezke hurrengo helbidean: [dbo@urolaerdia.eus](mailto:dbo@urolaerdia.eus)

### **4. Zein helbururekin tratatzen ditugu zure datuak?**

---

Datu tratamenduaren helburua Mankomunitateak egiten dituen tratamendu jarduera bakoitzari dagokio eta Tratamendu-Jardueren Erregistroan ikus daiteke.

Tratamendu jarduera bakoitzak dituen helburu zehatzen inguruan informatuko zaizu datuak jasotzen diren bide desberdinetan dauden klausula informatzaileen bidez, hala nola, web inprimakiak, paperezko inprimakiak eta karteletan beste batzuen artean.

### **5. Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?**

---

Mankomunitateak egiten duen datu pertsonalen inguruko tratamendua lege-eginbearra betetzeko, interes publikoaren izenean edo esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko, interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren adostasunarekin egiten da.

Interesdunaren adostasuna beharrezkoa bada datuak tratatzeko, interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua izango da, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina.

Tratamendu-jardueren erregistroak, tratamendu jarduera bakoitzari aplikagarri zaion oinarri juridikoa jasotzen du.



## 7. Datuen babeserako politikak onestea

## 6. Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?

---

Datu pertsonalak ez dira gordeko dagokion tratamenduaren xedeetarako behar den denbora baino gehiagoz, salbu eta interes publikoaren izenean artxibatzeko, ikerketa zientifiko edo historikorako edo estatistika-xedeetarako gorde behar badira, eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunen preskripzio-epea bete arte.



## 7. Datuen babeserako politikak onestea

### **7. Nola lortu ditugu zure datuak?**

---

Interesdunak zuzenean eman ditu tratatzen diren datuak. Datu pertsonalak interesdunak zuzenean eman ez baditu, horren berri emango zaio dagozkion informazio-klausulen bidez, datuak lortu ondoren, arrazoizko epe baten barruan, eta gehienez ere hilabete baten barruan.

### **8. Nori komunikatuko zaizkio zure datuak?**

---

Tratamendu-jarduera bakoitzean komunikatzen diren datuen hartzaileak Tratamendu-Jardueren Erregistroan kontsulta daitezke. Mankomunitateak datu pertsonalak hirugarrenei soilik jakinarazten dizkie, baldin eta beharrezkoa bada tratamenduaren xedeagatik edo tratamendua hobeto kudeatu ahal izateko.

Tratamendu Jardueren Erregistroan adierazitakoaz gain, Mankomunitateak ez dizkie datu pertsonalak hirugarrenei jakinaraziko, legeak hala agintzen ez badu behintzat.

### **9. Zeintzuk dira zure eskubideak zure datuak ematen dizkiguzunean?**

---

Edozein pertsona fisikok egikaritu ditzake indarrean dagoen araudiak ematen dizkion eskubideak: irispide-eskubidea, zuzentzea, ezereztea eta aurka egitea, mugatzea, transferitzea eta banakako erabaki automatizatuen objektu ez izatea.

- Iripide-eskubidea: Interesdunak eskubidea izango du Mankomunitateak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez eta, hala bada, datu pertsonalak irispidean izateko eskubidea.

- Zuzentzea: datu pertsonal okerrak atzerapen bidegaberik gabe zuzentzea eta datu pertsonal osagabeak osatzea ahalbidetzen du.





## 7. Datuen babeserako politikak onestea

- Ezereztea: datu pertsonalak ezereztea eta Mankomunitateak datu horiek tratatzeari uztea, salbu eta lege-betebehar batek kontserbatzea eskatzen badu eta Mankomunitateak datuak tratatzeko interes legitimo larriak ez baditu interesdunen interesen gainetik indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Mugatzea: legeak ezarritako baldintzetan, datuen tratamendua geldiaraztea ahalbidetzen du. Modu horretan Mankomunitateak etorkizunean datuak tratatzeari ekidingo dio. Soilik legeak zehaztutako arrazoiengatik edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko kontserbatuko dira.

- Aurka egitea: Interesdunak, bere egoera partikularra dela eta, edozein unetan berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egitea ahalbidetzen du. Mankomunitateak datuak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

- Transferitzea: interesdunak bere datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzea, bai eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzea ahalbidetzen du. Eskubide hau egikaritzeko, beharrezkoa izango da titularrak helbide elektroniko bat ematea.

- Banakako erabaki automatizatuen objektu ez izatea: interesdunari soilik tratamendu automatizatu batean oinarrituta dagoen eta berarengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izatea bermatzen dio, profilak egitea barne.

Datuak tratatzeko interesdunaren adostasuna beharrezkoa bada, honako hau interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabekoa, zehatz eta arrazoitua izango da, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina. Interesdunak adostasuna kendu dezake edozein unetan. Adostasuna kentzeak ez du eraginik izango kendu aurretik emandako adostasunean oinarrituriko tratamenduaren legitimitatean. Tratamendu bakoitzaren izaeraren arabera, adostasuna kentzeak datu pertsonal horiek erabiltzen ziren zerbitzua ematen jarraitu ezin izatea ekar dezake, ezinbestekoak baitira horretarako.



## 7. Datuen babeserako politikak onestea

## 10. Nola egikaritu daitezke eskubideak?

DBOari zuzendutako idazki baten bidez egikaritu ditzakezu eskubideak, "Tratamenduaren arduraduna" eta "Datuk Babesteko ordezkaria" ataletan jasotako harremanetarako datuen bidez, "Datuen Babesa" erreferentzia adierazita. Interesdunen eskaerei erantzuteko, gehienez hilabete batetik hiru hilabete bitarteko epea izango da, eskubideak jasotzen direnetik zenbatzen hasita. Eskabidean honako hauek jaso behar dira: izen-abizenak eta NANaren fotokopia, eskaera oinarritzen duen arrazoia eta jakinarazpenetarako helbidea.

Mankomunitateak zure eskubideen egikaritzan emandako erantzunarekin ados ez bazaude, Datuk Babesteko Euskal Bulegoan (<http://avpd.euskadi.eus/>) edo Datuk Babesteko Espainiako Bulegoan (<https://www.aepd.es/es>) erreklamazioa jartzeko eskubidea daukazu.

## 11. Zer da konfidentzialtasun betebeharra?

Datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsonak konfidentzialtasun-betebeharra bete beharko dute, datu pertsonalak behar bezala tratatuko direla bermatzeko, baimenik gabeko edo zilegi ez den tratamenduaren aurkako babesa eta horien galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa barne, neurri tekniko edo antolamendu-neurri egokiak aplikatuz ("osotasuna eta konfidentzialtasuna").

